

EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN
“EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO”
MARKAREN ARAUTEGIA.

	EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.	 15 (e)tik 3. orria
---	--	---

I. ATALBURUA.- OROKORTASUNAK.

1. Artikulua.- Eusko Label bereizgarriak **“Euskal Babarruna – Alubias del País Vasco”** marka eta horren barruan **“Tolosako Babarruna – Alubia de Tolosa”**, **“Gernikako Indaba– Alubia de Gernika”** eta **“Arabako Babarrun Pintoa – Alubia Pinta Alavesa”** izendapenetan aitortzen duen Kalitate ziurtagiria, arautegi honetan ezartzen diren baldintzak eta indarrean dagoen legeak ezarritakoak betetzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoan landutako babarrunei ematen zaie.

Euskaraz zein gazteleraz adieraziko dira. Beraz, Eusko Label bereizgarria ez dute jasoko beste jatorriren bat duten inongo babarrunek. Ezingo dira ere erabili ez izen, ezta espresio, marka edo bereizgarri, babestutakoekin antzekotasuna dutenak (fonetikoki edo grafikoki) eta nahasmena sor dezaketenak.

2. Artikulua.- Kalitatea Fundazioaren lana da Eusko Label bereizgarriaren defentsa eta promozioa egitea, arautegi honen aplikazioa segurtatzea edota aldaketak egitea, berau betetzen dela ziurtatzea, eta produktutaren kalitatearen sustapen eta kontrola egitea.

II. ATALBURUA.- PRODUKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK.

3. Artikulua.- *Phaseolus vulgaris* espezieko babarrunei emango zaie Eusko Label bereizgarria, betiere honako arautegi honetako ezaugarriak betetzen badituzte eta III. atalburuko esparru geografikoaren barruan ekoizten eta ontziratzen badira.

Eusko Label bereizgarriarekin sailka daitezkeen ustategiak Kalitatea Fundazioak baimenduko ditu, kanpaina bakoitzaren hasieran. Eusko Label bereizgarria jasotzeko aukeratzen diren ustategi guztiek honako arautegi hau betetzeaz gain, babarrunaren kalitateak “gorena” edo “oso ona” izan beharko du.

4. Artikulua.- Eusko Label bereizgarria duten babarrunek, kalitateari eta freskotasunari dagokienez, honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- osoak eta haragitsuak izatea
- osasuntsuak, eta bereziki lizun, intsektu eta parasitu gabeak
- itxura freskoa eta barietate-mota bakoitzari dagokiona
- kanpoaldean hezetasun ezohikorik gabe, eta usain edota zapore arrarorik gabe
- garbiak, kalterik eta materia arrotzik gabe

5. artikulua.- Ezaugarri morfologikoak, fisiko-kimikoak eta organoleptikoak, ekoizpen-esparrua, laborantza-sistema, eta abarren arabera hiru babarrun-mota bereizi nahi dira; horiek dira merkatuan gehien preziatzen diren motak, eta ondorioz, arautegi honetako 1. atalean ezartzen denaren arabera, Eusko Label bereizgarria duen “Euskal Babarrunak – Alubias del País Vasco” markan hiru izendapen bereiziko dira:

1. - **“Tolosako Babarruna – Alubia de Tolosa”**.
2. - **“Gernikako Indaba - Alubia de Gernika”**
3. - **“Arabako Babarrun Pintoa - Alubia Pinta Alavesa”**.

	EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.	 15 (e)tik 4. orria
---	--	---

5.1. - “Tolosako Babarruna – Alubia de Tolosa”:

Honako ezaugarri hauek izan behar ditu babarrunak:

- Barietate “Tolosarra” (Aiena) Mintegiko Hazi eta Landareen Institutu Nazionalean erregistratuta dagoena.
- Tamaina zehaztugabea (mulu altua).
- Artoarekin erlazionatutako ekoizpen-sistema, eta estalperik gabe landuko dira, ereiten denetik hasita; 120-170 egun irauten ditu lan honek.
- Aleak forma oboidea izan behar du eta kolorea ubel ilunetik beltzera bitartekoa izan daiteke.
- Aleen tamainaren eta pisuaren arabera, Tolosako Babarrunak izen desberdinak jasotzen ditu, hala nola:
 - “Txiki” Tolosako Babarruna, luzeran 0,5 cm eta 1 cm, eta 100 alek 35-45 inguruko pisua dute.
 - “Haundi” Tolosako Babarruna, , luzeran 1 cm eta 1,5 cm, eta 100 alek 50-65 inguruko pisua dute.

5.2. - “Gernikako Indaba - Alubia de Gernika”

Honako ezaugarri hauek izan behar ditu babarrunak:

- Barietate “Gernikarra”, Mintegiko Hazi eta Landareen Institutu Nazionalean oraindik erregistratu gabe dagoena.
- Tamaina zehaztugabea (mulu altua).
- Artoarekin erlazionatutako ekoizpen-sistema, eta estalperik gabe landuko dira, ereiten denetik hasita; 120-170 egun irauten ditu labore honek.
- Aleak forma oboide luzeska izan behar du, eta kolorea granatetik krema kolore bitartekoa izango da.
- Tamaina, luzeran 1-1,5 cm.
- 100 aleren pisua, 40-60 gramo bitartekoa izango da.

5.3. - “Arabako Babarrun Pintoa - Alubia Pinta Alavesa”.

Honako ezaugarri hauek izan behar ditu babarrunak:

- Barietate “Arabarra” (Laura) Mintegiko Hazi eta Landareen Institutu Nazionalean erregistratuta dagoena.
- Tamaina zehaztugabea (mulu baxua).
- Estalperik gabe landuko dira, ereiten denetik hasita; 120-140 egun bitartean.
- Aleak forma oboidea izan behar du eta kolorea granatetik krema kolore bitartekoa izango da.
- Aleen tamaina luzeran 0,5-1,5 cm izango dira.
- 100 aleren pisua 35-45 gr. bitartekoa izango da.

	EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.	 15 (e)tik 5. orria
---	--	---

6. Artikulua.- Eusko Label bereizgarria adierazitako esparru geografikoan landu diren babarrunek bakarrik jaso ahal dute, eta gainera honako Arautegi honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte, alegia, landu eta eultzitu ondoren, kolorearen eta tamainaren arabera aukeratuko dira, eta ondoren, Kalitatea Fundazioak onetsitako zentroetan eta ontzietan ontziratuko dira.

7. Artikulua.- Babarrunak itxura leuna eduki eta osorik azalez estalita egon behar du.

8. Artikulua.- Ontzi bakoitzean ontziratutako produktuari dagokionez, 2 mm-ko aldea onartuko da.

9. Artikulua.- Ontzi batean, babarrun guztien artean kalitatearen parametroak betetzen ez dituen, %5 bakarrik onartuko da, eta %2 gainontzeko kalitatearen parametroei dagokionez.

10. Artikulua.- Gainera, honako arautegi honetako baldintzak betetzen dituzten produktuek Eusko Label bereizgarria lortuko dute, eta jada prestatuta ere sal daitezke, aldezturik baimena eskatzen bada eta Kalitatea Fundazioak baimen hori onetsi egiten badu.

III. ATALBURUA.- EKOIZPEN-ZONAK MUGATZEA

11. Artikulua.- Babarrunak 1. atalean definitu ditugun izendapenetan bildu ahal izateko, aipatu ezaugarriak betetzeaz gain, honako esparru geografiko hauetan ekoiztu behar dira:

- Tolosako babarruna eta Gernikako Indaba EAEko zona atlantiarrean ekoiztuko dira, Lurrinketa-Transpirazio Errealaren bitartez (Thornthwaite), 585 mm edo gehiago dituen; neguan, gutxieneko tenperaturak (ez baxuegiak) eta udan gehieneko tenperaturak (ez altuegiak), bi babarrun-mota hauei dagokienez kalitatezko babarruna lortzeko dagokion klima leun egokiaren arabekoak izango dira.
- Arabako Babarrun Pintoa Autonomia Erkidegoko zona kontinentalean ekoiztu behar da, Lurrinketa-Transpirazioaren bitartez, 585 mm baino gutxiagokoa.

IV. ATALBURUA. PRODUKTUAREN EKOIZPENA

12. Artikulua.- Babarruna behar bezala garatu eta hazteko egokienak diren laborantza-teknikak erabili beharko dira. Produktuaren kalitatea hondatu dezakeen edo indarrean dagoen arautegia betetzen ez duen laborantza- edo biltzaile-sistematik ezin izango da erabili, ezarritako irizpideei jarraiki.

13. Artikulua.- Ekoizpenerako sistema tradizionalei eusteko eta tratamenduak minimizatzeko, tratamenduak ez dira sistematikoki erabiliko. Beste aukerarik ez dagoenean bakarrik, produktuaren kalitatea kaltetzeko arrisku handia dagoenean bakarrik, eta aldezturik jakinarazi ondoren, egin ahal izango dira tratamendu fitosanitarioak, betiere Kalitatea Fundazioak onesten dituenak.

	EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.	 15 (e)tik 6. orria
---	--	---

Beharrezkoa den kasuetan bakarrik eta beti aholkularitza teknikoari jarraiki ezin izango da bestelako produktu fitosanitarioik erabili, Fundazioak onesten ez baditu, behintzat. Tratamendurik aplikatuz gero, bai tratamendu fitosanitarioak bai babarruna bildu ondoren babesteko tratamenduak, eta honako kanpaina honetarako baimendu diren tratamenduen artean ez badago, probintziako elkarteetako teknikarien baimena behar izango da, eta tratamendua arazoa konpontzeko ezarriko da, ingurugiroa errespetatzen duten eta berehala desagertzen diren produktuak erabiliz. Kasu hauetan, babarruna biltzeko, produktuaren eragina igaro arteko epea itxaron beharko da.

Fundazioak, kanpainaren hasieran baimendutako tratamenduen zerrenda aurkeztuko du.

14. Artikulua.- Produktua garapen-une bikainenean dagoenean bilduko da, kontu handiarekin, fruitua ez kaltetzeko.

15. Artikulua.- Erregistratutako ustiaketek Kalitatea Fundazioak baimendutako barietateak baino ezin izango dituzte ekoiztu.

V. ATALBURUA.- ONTZIRATZEA ETA ETIKETATZEA

16. Artikulua.- Erregistraturiko ekoizleek indabaren selekzioa eta ontziratzea, homologatutako selekzio eta ontziratze zentru bakar batean egin beharko dute.

17. Artikulua.- Produktua, kontsumitzaileari saltzeko unitateetan bakarrik markaturata daiteke.

18. Artikulua.- Ontzi bakoitzeko edukiak homogeneoa izan behar du, bai barietateari, tamainari, koloreari eta heldutasun-mailari dagokionez ere. Ontzian ez da lurrik, hosto lehorrik edo gorputz arrotzik egongo. Aldi berean ontziratutako produktuari dagokionez, ontziak ondo itxita egon behar du.

Ontzia, produktua erraz ikusteko modukoa izango da, eta barrukoa ondo babestuta dagoen ziurtasuna eman beharko du.

19. Artikulua.- Fundazioaren eskumeneko organoak, etiketak, diseinuak eta ontziak onetsi beharko ditu, merkaturatu baino lehen, eta, hala badagokio, erabili beharreko ontziak, horien koloreak, banaketa eta ontzi bakanen salmenta egiteko erabiltzen diren kutzak eta erakustokiak osotasunean edo zati batean nolakoak izan behar duten erabaki ahal izango du.

Modu berean, kanpaina batetik bestera, merkaturatzeko interesaren arabera, produktuaren aurkezpen-mota ere alda daiteke.

Fundazioak egingo du Labelaren sinboloa agertzen den etiketa eta ontzien kontrola, sinboloa behar bezala erabiltzen dela, kopia ez dutela edota, sinboloa idazterakoan nahiz adierazterakoan Eusko Label bereizgarriaren izen onaren nahiz helburuen aurka egiten ez dela ziurtatzeko.

20. Artikulua.- Erregistratutako ontziratze zentroek, Euskal Autonomia Erkidegotik eta Eusko Labelean erregistratuta dauden explotazioetatik datozen babarrunak baino ezin izango dituzte maneiatu, ontziratuta edota merkaturatu.

	EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.	 15 (e)tik 7. orria
---	--	---

VI. ATALBURUA.- KALITATEAREN KONTROLA.

21.1. Artikulua.- Kalitatea Fundazioak ezarriko ditu produktuak jarraitu behar duen prozesuan zehar, alegia, ekoizpenean, biltegiatzean, garraioan, ontziratzean eta merkaturatzean, beharrezkoak diren kontrol-sistemak, hartara ziurtatu egingo da, Kalitatearen Labelaren sinboloekin identifikatutako produktuak honako Arautegi honetan ezarritako baldintza guztiak eta ezarri ahal izango zaizkion gainerako arautegietako baldintza guztiak bete egiten dituela.

2.- Lehenik eta behin, erregistratutako ekoizleen eta ontziratzaileen ardura izango da produktuaren trazagarritasunaren kontrola eta kalitatearen kontrola egitea. Ekoizleek eta ontziratzaileek, beren lan-prozesuetan, Fundazioak onetsitako sistema operatiboak eta kontrol-sistemak, egokiak eta nahikoak, ezarriko dituzte, bide batez Arautegi honetan definitutako arautegia bete ahal izateko.

22. Artikulua.- Euskal Babarrunaren Kalitatearen Euskal Labelean erregistratuta dauden guztiek, horretarako baimena izango duten ikuskatzaileen kontrolak onartu, kontrol-lan horretan lagundu, eta ekoizpenaz, manipulazioaz edota merkaturatzeaz eskatzen dieten datu eta agiriak eman beharko dizkiete.

23. Artikulua.- Produktuaren prozesuaren katea (ekoizpena, ontziratzea, merkaturatzea eta gainerako lanak) kontrolatzeko eta gainbegiratzeko, baita ondoren aztertzeko eta prozesuak ziurtatzeko ere, enpresen edo teknikari espezializatuen zerbitzuak kontrata daitezke, eta egokien deritzen kontrol-sistema ezarri.

VII. ATALBURUA.- ERREGISTROAK

24. Artikulua.- Kalitatea Fundazioak, edo izendatzen diren organoek, jarraian adierazten diren erregistroak edukiko dituzte:

- a) Eusko Label bereizgarria duen “Euskal Babarrunak – Alubias del País Vasco” markako ekoizle-erakundeek eta ekoizleen Erregistroak.
- b) Eusko Label bereizgarria duen “Euskal Babarrunak – Alubias del País Vasco” marka ekoizteko, aukeratzeko eta ontziratzeako onetsi diren ekoizpenerako eta ontziratzeako Erakundeek Erregistroak.

VIII. ATALBURU. NEURRI ZUZENTZAILEAK

25. Artikulua.- Erregistratutako erabiltzaileek Arautegia betetzen ez badute, Fundazioak zigorra jartzeko ahalmena du, jakinarazpenen bitartez, edo marka erabiltzeko baimena, aldi baterako gabetuz edo behin betirako gabetuz.

	EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.	 15 (e)tik 8. orria
---	--	---

Autokontrolerako Arauak

1. Ekoizpen Elkarteei dagokienez:

- Ekoizle Elkartek bakoitzak, erregistroa eguneratuta edukiko du, non elkarteko kideak azalduko diren, baita lursailari, barietateei, laborantza-bideei, ekoizpenen aurreikuspenei eta interesgarriak izan daitezkeen beste zenbait alderdiri buruzko datuak ere.
- Elkartek hauek, kanpaina bakoitzaren hasieran, kide diren ekoizleen zerrenda aurkeztuko dute, non gutxienez, jarraian adierazten diren datuak azaldu beharko diren:
 - Ekoizlearen izena eta deiturak, helbidea, udalerria, telefonoa, eta abar.
 - Babarruna ekoizteko erabiltzen den azalera, ekoizpen-sistemaren, landatutako barietatearen eta aurreikusitako ekoizpen-bolumenaren arabera.
 - Ontziratze-lekua.

- Ekoizle Elkartek bakoitzak gainbegiratuko du aipatu informazioa zuzena dela.

- Elkartek edo ekoizle bakoitzak, bildutako ekoizpenak eguneratuta edukiko ditu, Fundazioari emango dizkionak honek eskatu bezain laister. Eman beharreko informazioak, gutxienez, honako datu hauek bilduko ditu: izena eta deiturak, eguneko, asteko edo gutxienez hileko babarrun-ekoizpena, ontziratze-lekua, burututako tratamenduak, interesgarritzat jotzen diren beste hainbat informazioz gain. 1. Fitxan, erabiltzen diren tratamenduei buruz beharrezkoa den informazioa biltzen da.

2.- Ontziratze-zentroei dagokienez:

- Ontziratze-zentroek sarrera-albaranen liburu bat eta erregistro-liburu bat edukiko dute, non sorta bakoitzeko identifikazioa azalduko den: ekoizlea, data eta emandako kantitatea, data eta Labeladun ontziratutako kantitatea, erabilitako etiketa-kopurua, ontzi-mota, baita produktuaren trazagarritasuna ziurtatzeko beharrezkoa izan daitezkeen bestelako informazioa ere.

	EUSKO LABEL BEREIZGARRIA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAÍS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.	 15 (e)tik 9. orria
---	--	---

BESTE ZENBAIT AGIRI

Urteroko edo aldian behinkako komunikazioak:

“Euskal Babarrunak – Alubia del País Vasco” markaren arautegian eta kontratuan xedatutakoari jarraiki, urtero hurrengo akordioak jakinaraziko dira:

1. Onetsitako barietateak.
2. Baimendutako tratamenduak.
3. Ontziak eta etiketak (formatuak eta diseinua).
4. Ordaindu behar diren kuotak.
5. Arau-hausteen tipifikazioa.

1. AGIRIA
1999 URTERAKO BAIMENDUTAKO BARIETATEAK

TOLOSAKO BABARRUNA

- Landuak: 143 eta 301
- Barietate propioak

GERNIKAKO INDABA

- Landuak: 85, 90,95,54
- Barietate propioak

ARABAKO PINTOA

- Landua: 89.



EUSKO LABELA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK – ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.



155 (e)tik 11. orria

2. AGIRIA Baimendutako Tratamenduak

Euskal Labela lortzeko erregistratu diren ustategietan erabilitako tratamenduak aztertuko dira, baita laborantza-praktika ohikoenen azterketa ere. Datu horiek bildu ondoren, eta teknikariek produktu fitosanitario desberdinei buruzko ezagupenekin eta ekoizpen-joera berriekin (ekoizpen Integratua), datorren kanpainari begira baimendutako tratamenduen zerrenda bat landuko da, zeintzuk eraginkorrak izateaz gain, poluzio gutxi eragingo duten eta ingurugiroarekiko errespetagarriak izango diren.

3. AGIRIA ONTZIAK

Ontziak eta etiketak (formatuak eta diseinua)

Ontzi-motak:

- Kontsumitzaileari aleka saltzeko ontzia (1/2 kg, 1 kg, eta 3 kg-ko formatuak). Honako modalitate honetan, produktuaren aurkezpena jarraian azaltzen den moduan egin beharko da:
 - Telazko zakua, Kalitatearen Euskal Labelaren bereizgarria duena, josita hala itsatsia, baina zigilu bezala.
 - Kartoi uhindu kaxan, edo paperezko zakua, transporting duena, Kalitatea Fundazioak onetsitako ereduen arabera.
 - 1 kg-ko beirazko ontzia, jada prestatuta dagoen produktuari dagokionez.
- Sukaldaritzan erabiltzeko ontziak (10 kg eta 25 kg-ko ontziak). Modalitate honetan produktua telazko zakuetan aurkeztuko da, behar bezala itxita eta Euskal Babarrunaren Kalitatearen Euskal Labelaren bereizgarria dutelarik.

ETIKETAK

Etiketan azaldu behar diren datuak honako hauek dira:



EUSKO LABELA DUEN “**EUSKAL BABARRUNAK –
ALUBIAS DEL PAIS VASCO**” MARKAREN ARAUTEGIA.



155 (e)tik 12. orria

- Babarrun-motaren izena, Euskal Babarrunaren Kalitatearen Euskal Labelaren Arautegian azaltzen den bezala; 2000 urtetik aurrera Kalitatea Fundazioak zehaztuko ditu tipografia eta kolorea.
- Eduki garbia (500 gr. Gutxieneko altuera 3 mm 1 kg dagokionez, eta gehiago dutenentzako 5 mm).
- Datak zehaztea (ontziratze-eguna eta gutxieneko iraupen-data: “urtea” amaiera baino lehenago kontsumitu (hilabetea eta urtea)
- Kontserbatzeko, erabiltzeko baldintza bereziak.
- Enpresaren identifikazioa.
- Sorta-zenbakia.
- Maila komertziala.



EUSKO LABELA DUEN “**EUSKAL BABARRUNAK –
ALUBIAS DEL PAIS VASCO**” MARKAREN ARAUTEGIA.



155 (e)tik 13. orria

ORDAINDU BEHARREKO KUOTAK EDO BEREIZGARRIEN KOSTUAK.

1999ko kanpainari dagokionez, ordaindu beharreko kuotak honako hauek dira:

Etiketa	Kantitateak	1.000
		5.000
		10.000
		30.000

6. AGIRIA

ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA

ARAU-HAUSTE ARINTZAT HONAKO HAUEK JOTZEN DIRA:

1. Ontziratutako babarrunak Arautegian ezarritako kalitatearen parametroak betetzen ez dituenean, tamaina, kolorea, forma, homogeneotasuna, osotasuna, eta abarri dagokienez, eta akats txikiei dagokienez, pilatutako perdoiak %7 gainditzen duenean, baina %10 gainditu gabe.
2. Ontziratutako produktuan elementu arrotzak ikustea, hala nola, lurra, intsektuak eta bestalako arrastoak, nahiz eta gutxieneko agerpena izan.
3. Gutxienez babarrunaren azaleraren bosten bat gorria edo tartekatua (berdetik gorria) ez izatea
4. Urtean barna baimendu gabeko tratamenduak erabiltzea eta gainera, teknikariaren baimenik gabe.
5. Beste zenbait arau-hauste, arau-hauste larritzat jo daitezkeenak, eragiten dituzten ondorioen arabera.

ARAU-HAUSTE LARRITZAT HONAKO HAUEK JOTZEN DIRA:

1. Parteetan, deklarazioetan, liburuetan eta gainontzeko kontrol-agirietan gauzak behar bezala ez adieraztea, gezurretan ibiltzea edo gauzak ezkutatzea, baita kontrolerako eta seinaleztapenerako euskarriak, agiriak edo elementuak gaizki erabiltzea ere.
2. Kalitatearen Euskal Labelaren etiketa lortu duen babarrunak, ezarritako kalitatearen parametroei dagokienez, pilatutako akatsen %10 gainditzea.
3. Tratamenduen hondakinak, Legeriak onetsitako kantitateak gainditzea.
4. Babarruna,^o kanpainarako baimendutako barietateen desberdina izatea.
5. Indarrean dagoen Legeria urratzen duten ekoizpen-sistemak edo produktuak erabiltzea.
6. Euskal Babarrunaren Kalitatearen Euskal Labelaren erregistroetan erregistratuta ez dauden EAEko ekoizleen edo ekoizle-elkarteen Babarrunak erabiltzea.
7. Kalitatea Fundazioak onetsi ez dituen ontziak, filmak edo etiketak erabiltzea.



**EUSKO LABELA DUEN “EUSKAL BABARRUNAK –
ALUBIAS DEL PAIS VASCO” MARKAREN ARAUTEGIA.**



155 (e)tik 15. orria

8. Adierazitako kuotak ez ordaintzea.
9. Kalitatearen Euskal Labelaren bereizgarriak, ontziak eta publizitate- eta promozio-elementuak behar bezala ez erabiltzea, edo elementu horiek Fundazioaren Teknikariak luzatu beharreko idatzia lortu gabe erabiltzea; arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo daiteke.
10. Euskal Babarrunaren Kalitatearen Euskal Labelaren Arautegian ezarritako beste zenbait alderdi urratzea, zeintzuk aipatu arau-hausteen artean agertzen ez badira ere, larritzat jo daitezkeen, izan ditzaketen ondorioengatik edo eragiten duten ekoizpen-bolumenagatik.

ARAU-HAUSTE OSO LARRITZAT HONAKO HAUEK JOTZEN DIRA:

1. Baimendutako ikuskatzaileei kontrol- eta ikuskapen-zereginak burutzen ez uztea; arau-hauste oso larria izan daiteke.
2. Labelik gabeko produktuetan Labelaren sinboloak erabiltzea.